



3

TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRETERIAKO UDALA

Giza Baliabideak

*Errenteriako Udalaren 2022. urterako lanpostu-zerrendaren bigarren aldaketa. Baimena ematea San Marko Mankomunitateari Errenteriako Udaleko idazkari nagusiak San Marko Mankomunitateko Idazkari-lanak egin ditzan.*

Udalbatzarrak, 2022ko uztailaren 19ko ohiko batzarrean, besteak beste, honako akordioa hartu du:

«*Lehenengoa.* Baimena ematea San Marko Mankomunitateari Nagore Sarasola Otermin Errenteriako Udaleko egungo Idazkari Nagusiak San Marko Mankomunitateko Idazkari-lanak egin ditzan.

*Bigarrena.* Onartzea Mankomunitatearekin Idazkaritza funtzionak egikaritzeko baldintzak arautuko duen hitzarmen-proposamena, espedientean jasotakoa.

*Hirugarrena.* Errenteriako Udaleko idazkaritza orokorraren lanpostuari dagokion berriazko osagarria (LPZko 2100 kodea) 16.125,12 eurotan handitzea urtean, Mankomunitateko idazkaritza-funtzioak betetzen hasten denetik, 2022ko irailaren 1erako aurreikusita eta eginkizun-esleipen horrek irauten duen bitartean. Hori amaitutakoan, lanpostuaren berriazko osagarriaren urteko zenbatekoa aldatuko da, zehazki zenbateko horretan eta izan dituen soldata-igoerekin gutxituz, hala badagokio.

Ordainsari berri horiek lanpostuaren titularrari bakarrik ordainduko zaizkio, Mankomunitateko Idazkari-lanak egingo dituen pertsona bakarra delako, gaikuntza nazionalako funtzionario izaera duen heinean.

*Laugarrena.* Lanpostuen Zerrenda aldatzeko erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 16. artikulua baitan. Eta 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan xedatutakoa betetzea akordio honetan adierazitakoei buruz publikotasun aktiboari dagokionean.

*Bosgarrena.* Akordioa jakinaraztea San markoseko Manokomunitateari.»

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsio jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein

errekurtso, dagokion Administrazio Auzietarako Auzitegian, bi hilabeteko epean, akordio hau azken aldiz Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz- zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, akordio hau azken aldiz Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Horrenbestez guztien ezagupenerako jakinarazten dut.

Errenteria, 2022ko uztailaren 20a.—Alazne Korta Zulaika, Antolaketako ordezkaria. (4902)